



**BALIO IRIZPIDEEN BIDEZ EGINDAKO BALORAZIO TEKNIKOA,
GIPUZKOAKO TOKIKO ADMINISTRAZIOETAN EMAKUME ETA
GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK SUSTATU ETA
INDARTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKOARI BURUZKOA.**

Expedientea 2019328CO600

**1. SORTA: GIPUZKOAKO UDALERRI TXIKIEI EMAKUME ETA GIZONEN
BERDINTASUNERAKO POLITIKAK PLANIFIKATU ETA GARATZEKO
LAGUNTZA EMATEA.**

1. SARRERA

Lizitaziora proposamen teknikoak aurkezteko epearen ostean hiru enpresek aurkeztu dute haien proposamena.

- Az Participación
- ARETE ACTIVA SA
- Oreka Sarea

Onartuak izan diren proposamenak, ordea, bi izan dira, izan ere, ARETÉ-ACTIVA, SL enpresak 2 zenbakidun artxibo elektronikoan sartu du "eskaintza ekonomikoari eta formula bidez ebaluatzeko eskaintzako beste elementuei buruzko dokumentua", eta hori soilik 3 zenbakiko artxibo elektronikoan sartu beharrekoa zen, automatikoki ebaluatu beharreko irizpideei dagokiolako. Hori horrela izanik, Kontratazio Mahaiak erabaki du ARETÉ-ACTIVA, SL enpresak aurkeztu duen proposamena kanpoan uztea. Horregatik guztiatik, onartuak izan diren proposamenak bi izan dira:

- Az Participación
- Oreka Sarea

Gauzak horrela, aipatutako bi enpresen proposamen teknikoak baloratu dira.



2. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proposamen teknikoa: 49 puntu gehienez

1. Proposamena marko kontzeptual eta arautzailearen barruan modu egokian kokatzea: baloratuko da emakume eta gizonen berdintasunerako paradigma eta politiketan kokatzea proposamen teknikoa; egungo arau, planifikazio eta marko arautzailean.

9 puntu gehienez

2. Gipuzkoako errealitatearen eta aurrekarien ezagutza: Gipuzkoako udalen errealitatea kontuan izatea, eta Gipuzkoako udalei eskaintzen zaizkien emakume eta gizonen berdintasunerako politika, programa, zerbitzu eta esperientzien ezagutza kontuan izanik diseinatzea proposamen teknikoa.

5 puntu gehienez

3. Lan proposamena baloratuko da: zein ekintza proposatzen diren, zein den proposamenaren estaldura, lan metodologia, denboren planifikazioa, eta azkenik programaren jarraipenerako sistema.

20 puntu gehienez

4. Ebaluaketaren diseinua proposamen teknikoan, programaren ebaluaketa nola egingo den zehaztu, eta aurrez planifikatzea baloratuko da.

10 puntu gehienez

5. Kontratuaren objektu den zerbitzuan udalen parte hartzea sustatzeko proposamena.

5 puntu gehienez



3. BALORAZIO TEKNIKOA

Az Participación
Proposamen teknikoa: 49 puntu gehienez
1. Proposamena marko kontzeptual eta arautzailearen barruan modu egokian kokatzea: baloratuko da emakume eta gizonen berdintasunerako paradigma eta politiketan kokatzea proposamen teknikoa; egungo arau, planifikazio eta marko arautzailean. Gehienez 9 puntu.
<p>Berdintasun politiken markoan berriki sartzen ari diren kontzeptuak aipatzen ditu proposamenak. Esaterako, "interseksionalitatea" eta berdintasunaren aldeko emakume mugimenduekin elkarlana.</p> <p>Baina ezinbestean aipatu beharrekoen inguruan ez dago azalpen ezta kokapen gehiegirik. Ekintza Positiboa, Mainstreaming-a eta Emakumeen Ahalduntzeari buruzko berdintasun politiketarako estrategia nagusien kokapena marko internazionalen eta gipuzkoarren ez dute sartu.</p> <p>Egoki kokatzen dute bertako instituzio publikoen marko arautzaileak. Maila internazionalakoak ez dira aipatzen. Marko programatikoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegokoa aipatu arren, Foru Aldundikoan soilik II. Berdintasunerako plana aipatzen dute; Aurre eta Kontziliazio planaren inguruko aipamenik gabe.</p>
Guztira jasotako puntuak 5 puntu
2. Gipuzkoako errealitatearen eta aurrekarien ezagutza: Gipuzkoako udalen errealitatea kontuan izatea, eta Gipuzkoako udalei eskaintzen zaizkien emakume eta gizonen berdintasunerako politika, programa, zerbitzu eta esperientzien ezagutza kontuan izanik diseinatzea proposamen teknikoa. Gehienez 5 puntu.
<p>Orain arte nork hartu duen parte eta nork ez programa bakoitzean identifikatu dute, bai eta hartzaile posible berriak. Biztanleriaren araberako sailkapen minimoa egiten du, programak eskatzen duena. Gipuzkoako udalen Berdintasunerako egiturak egoki kokatzen ditu. Ez du sakontzen informazioan behar dena baino gehiago.</p>
Guztira jasotako puntuak 3 puntu



3. Lan proposamena baloratuko da: zein ekintza proposatzen diren, zein den proposamenaren estaldura, lan metodologia, denboren planifikazioa, eta azkenik programaren jarraipenerako sistema. Gehienez 20 puntu.

Zerbitzuak orain arte eskaintzen duena proposatzen da, era egokian, baina ez dute sakontzen udalen planifikazioek izan beharreko ezaugarrien inguruan, edo erabiliko duten planifikaziorako tresnen inguruan.

Udal kopuruak egoki identifikatzen ditu eta zerbitzura berriak sartzeko aukera eskaintzen du, baina udal barruko agente ezberdinen arteko beharrak ez dira identifikatzen. Politikariei eskaintzen zaiena motz geratzen da, batez ere gaikuntza teknikoan jartzen dute indarra.

Lan metodologikoaren eskaintza egokia da. Bestalde, herrietako ekintzak antolatzeko programa bateratu bat egitearen proposamenak herrien autonomian atzera pausu bat ematea litzateke, gaur egun udal bakoitzak kudeatzen baitu bere programazioa. Azkenik, Metodologiaren azalpenean, metodologiak eta printzipio gidariak nahasten ditu proposamenak.

Denboraren planifikazioari dagokionez, erreala da orokorrean, 1.000 biztanletik beherakoena izan ezik. Horrenbestetan biltzea ez da bideragarria, bolondresak baitira, eta hala erakutsi baitigu esperientziak.

Azkenik, programaren jarraipena egiteko egiturei dagokionez, GFAko Berdintasun Organoarekin espero den koordinazio mailaz gutxi hitz egiten du. Etengabea izango dela esan arren, zehaztaper maila falta zaio.

Guztira jasotako puntuak 10 puntu

4. Ebaluaketaren diseinua proposamen teknikoan, programaren ebaluaketa nola egingo den zehaztu, eta aurrez planifikatzea baloratuko da. Gehienez 10 puntu.

Ebaluaketari buruzko atalean, gainera aipatzen dute ebaluazioaren garrantzia baina marko teorikorik aipatu gabe.

Metodologia eta tresnak aipatzen ditu, gainera, berrikuntza bat ere gehitzen du: udaletxe bakoitzaren informea. Era berean herrietako sektore sozialak ere kontuan hartzea aipatzen dute.

Adierazleak aipatzen dira, nahiz hauen neurgarritasuna ez den oso erraza. Esaterako, "*lortutako aldaketan iraunkortasuna eta jasangarritasun maila*".

Guztira jasotako puntuak 7 puntu



5. Kontratuaren objektu den zerbitzuan udalen parte hartzea sustatzeko proposamena: 5 puntu gehienez.

Proposamen bat egiten da baina oso orokorra. Aritu bat ekartzea proposatzen da, baina ez da esaten zein. Kartel bat diseinatzeaz hitz egiten da, baina edukia zein litzatekeen ez. Parte hartzeko proposamena, zerbitzuko erabiltzaileak bilatzera mugatzen da.

Guztira jasotako puntuak 2.5 puntu

Az Participación					
Atal guztien batura					Puntuazio totala
1 atala	2 atala	3 atala	4 atala	5 atala	
5	3	10	7	2.5	27.5 puntu



OREKA SAREA

Proposamen teknikoa: 49 puntu gehienez

1. Proposamena marko kontzeptual eta arautzailearen barruan modu egokian kokatzea: baloratuko da emakume eta gizonen berdintasunerako paradigma eta politiketan kokatzea proposamen teknikoa; egungo arau, planifikazio eta marko arautzailean. Gehienez 9 puntu.

Berdintasun politiken ibilbide historikoa egiten du; *Estrategia duala, tratu berdintasuna, aukera berdintasuna, ekintza positiboa, mainstreaming-a*. Nazio Batuen Erakundearen adierazpenetatik, bertako marko arautzailearaino.

Marko programatikoari dagokionez, lehenik, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko marko programatikoen ibilbide historikoa egiten du, bilakaera azalduz.

Amaitzeko, gaur egungo marko programatikoa azaltzen du, bai Euskal Autonomia Erkidego mailakoa, nahiz Gipuzkoakoa ere, hiru planifikazioak aipatuz: II. Plana, Aurre plana eta Kontziliario erantzunkidearen plana.

Guztira jasotako puntuak 9 puntu

2. Gipuzkoako errealitatearen eta aurrekariaren ezagutza: Gipuzkoako udalen errealitatea kontuan izatea, eta Gipuzkoako udalei eskaintzen zaizkien emakume eta gizonen berdintasunerako politika, programa, zerbitzu eta esperientzien ezagutza kontuan izanik diseinatzea proposamen teknikoa. Gehienez 5 puntu.

Gipuzkoako herrien sailkapena egiten du populazioaren arabera.

Horrez gain, udal bakoitzak berdintasun politikekin eta Foru Aldundiarekin izan duen harremana ere aipatzen du, azken urteetako bilakaeraren mapa eginaz.

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldunditik tokiko berdintasun politikak sustatzeko tresnak izendatu eta aztertzen ditu: udalei zuzendutako dirulaguntzak, udalenzako hitzarmenak, besteak beste.

Guztira jasotako puntuak 5 puntu



3. Lan proposamena baloratuko da: zein ekintza proposatzen diren, zein den proposamenaren estaldura, lan metodologia, denboren planifikazioa, eta azkenik programaren jarraipenerako sistema. Gehienez 20 puntu.

Proposamen metodologikoaren aurretik, proposamena marko teorikoarekin aberastu dute. Ezagutzaren maila ezberdinak eta ezagutzaren eta gaikuntzaren arteko desberdintasunak agerian jarriz.

Horrez gain, prozesu izaerari eta ikuspegi sistemikoari garrantzia ematen diote eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikurra den gobernantza kolaboratiboaren baitan kokatzen du proposamena.

Egin den proposamenaren estaldurari begira, zerbitzurako aurreikusten ziren udal guztiak eta udaletako agente guztiak identifikatzen ditu; politiko eta teknikoak. Era berean proposamen erreala da zerbitzuaren ordu kopurua zehazten baitu, sailkapena eginaz zenbat ordu zein zerbitzuetarako. Hala ere, 1.000 biztanletik beherako udalerrientzako proposamena ez da gehiegi zehazten 10.000tik beherakoena bezala.

Planifikazioei garrantzi berezia ematen diote, 4/2005 Berdintasun Legearen 10. Artikuluko bigarren zatian jasotzen den moduan. Planifikazioen osteko ekintzak kudeatzeko sistemaz hitz egiten da. Metodologia asko ez argitu arren, argi geratzen da Berdintasun Organoarekin adostutako sistema izango dela, eta era berean udalen autonomia errespetatuko dela.

Denboraren planifikazioari dagokionez, bi urtetarako planifikazioa erreala egiten dute.

Koordinaziorako markoa kokatzen du, bai eta bileren kopurua zehaztu ere. Irekian uzten du antzerako programak kudeatzen dituzten asistentziekin koordinazioa. Antzerako instituzioekin koordinazio aipatzea hartu da faltan: (EUDEL, EMAKUNDE) Berdinbidean programa kudeatzeko garrantzia duten instituzioak.

Guztira jasotako puntuak 18 puntu



4. Ebaluaketaren diseinua proposamen teknikoan, programaren ebaluaketa nola egingo den zehaztu, eta aurrez planifikatzea baloratuko da. Gehienez 10 puntu.

Garrantzia ematen zaio ebaluazioari marko teorikoekin aberastuz. Prozesu jarraia bezala kokatzen da hobekuntzarako metodologia gisa.

Definituta daude zein tresna eta metodologia erabiliko diren ebaluaziorako. Adierazleak adierazi ez arren, hauen hautua irizpide tekniko politikoei utziko zaiolako egiten du baina era berean adierazle egokiak zeintzuk diren kokatzen laguntzen duen ekarpen teorikoa egiten du.

Planifikatua dago ebaluaketa, bai kronograman, bai eta taula bidez espazio kolektiboetan, prestakuntzan, planifikazioan, ekintzen antolaketan, interbentzioetan eta aholkularizetan.

Guztira jasotako puntuak 6 puntu

5. Kontratuaren objektu den zerbitzuan udalen parte hartzea sustatzeko proposamena: 5 puntu gehienez.

Proposamena ez da mugatzen zerbitzuaren hartzaile posibleak kontaktatzera. Parte hartu ahal izateko alde aurreko ezinbesteko baldintzen hausnarketa egiten du, proposamen proaktiboa eginaz motibazioaren inguruan, udalari egiten zaioen ekarpenaren inguruan eta abar.

Guztira jasotako puntuak 5 puntu

OREKA SAREA SA

Atal guztien batura					Puntuazio totala
1 atala	2 atala	3 atala	4 atala	5 atala	
9	5	18	10	5	47 puntu



4. PROPOSAMENEN ARTEKO ALDERAKETAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Gipuzkoako udalerrri txikiei emakume eta gizonen berdintasunerako politikak planifikatu eta garatzeko laguntza emateko zerbitzua ematea helburu zuen lehenengo lotean bi baleko proposamen jaso dira, ARETE ACTIVA kanpoan geratu baita.

Bi proposamenak balekoak diren arren, alde handia dago bien artean.

Lehenak, AZ Participación enpresaren eskaintzak, zerbitzua behar bezala emateko moduko eskaintza egin du, baina ez du proposamenaren atal bat beran ere aparteko ekarpenik egiten, eskatzen den ezagutza eta baldintzatik harago. Proposamenaren ekarpen interesgarria udal bakoitzaren inguruko informea egiteko proposamena izan da.

Bigarrenak, OREKA SAREA enpresaren proposamenak, ordea, gaur egungo zerbitzua izan dena izatera iristeko ibilbide historikoa eta kokapena oso modu egokian azaldu du. Aurrera begirako erronkak identifikatu ere. Horren gain, asko sakondu dute atal bakoitzaren marko teorikoetan, bai eta metodologiaren zehaztapen mailan. Azkenik, eskertzekoa da ere, enpresaren eskaintzan sailkatu dituzten zerbitzu bakoitzari eskainiko zaioen saio, eta ordu kopurua alde aurretik zehaztu izana. Horrek, proiektuaren jarraipen eta efizientziaren ebaluaketarako asko balioko du.

Horregatik guztiagatik, aurkeztutako proposamen teknikoak oinarrietan argitaratutako balorazio irizpideei jarraiki aztertu ostean, OREKA SAREA enpresa izan dela puntuazio handiena atera duena adierazten da txosten honen bidez. Eta hala argudiatzen da txostena osatzen duten gainontzeko orrialdeetan.

Donostian, 2020ko otsailaren 12an.

Joxepa Bornaetxea Estela
Berdintasun Teknikaria

BALORAZIO TEKNIKOAREN PROPOSAMENA

Gehienez 49 puntu

BALORAZIO IRIZPIDEAK		Az Participación	Oreka Sarea
<p>Marko kontzeptuala eta arautzailea Gehienez 9 puntu</p>	<p>Proposamena marko kontzeptual eta arautzailearen barruan modu egokian kokatzea: baloratu da emakume eta gizonen berdintasunerako paradigma eta politiketan kokatzea proposamen teknikoak; egungo arau, planifikazio eta marko arautzailean.</p>	5	9
<p>Gipuzkoako errealitatearen eta aurrekariaren ezagutza Gehienez 5 puntu</p>	<p>Gipuzkoako errealitatearen eta aurrekariaren ezagutza: Gipuzkoako udalen errealitatea kontuan izatea, eta Gipuzkoako udalei eskaintzen zaizkien emakume eta gizonen berdintasunerako politika, programa, zerbitzu eta esperientzien ezagutza kontuan izanik diseinatzea proposamen teknikoak.</p>	3	5
<p>Lan proposamena Gehienez 20 puntu</p>	<p>Lan proposamena baloratu da: zein ekintza proposatzen diren, zein den proposamenaren estaldura, lan metodologia, denboren planifikazioa, eta azkenik programaren jarraipenerako sistema.</p>	10	18
<p>Evaluaketaren diseinua proposamen teknikoan Gehienez 10 puntu</p>	<p>Evaluaketaren diseinua proposamen teknikoan, programaren ebaluaketa nola egingo den zehaztu, eta aurrez planifikatzea baloratu da.</p>	7	10
<p>udalen parte hartzea sustatzeko proposamena Gehienez 5 puntu</p>	<p>Kontratuaren objektu den zerbitzuan udalen parte hartzea sustatzeko proposamena.</p>	2.5	5
GUZTIRA (49 punturen gainean)		27.5 puntu	47 puntu